



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

130. zenbakia

2022ko urriak 14 – urriak 27

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

Udalerrri mailako hizkuntzen erabileraren neurketen emaitzen aurkezpenak izaten ari dira iraila eta abendua bitartean

Neurketa berezi horietan, udalek berriaz eskatuta, udalerriko emaitza zehatz fidagarriak eskuratzeko beharrezko datuak jaso ziren horretarako diseinatutako neurraldi eta ibilbideetan. Hurrengo aurkezpenen berri soziolinguistika.eus-eko agenda atalean.

Berba-lapiko eta Berbekin proiektuen gaineko aurkezpenak Eskola Hiztun Bila jardunaldietan

Eusko Jaurlaritzaren Ulibarri programa barruan EAEko ikastetxeetako hizkuntza normalkuntza teknikari eta irakasleentzako urtero antolatzen diren jardunaldi hauen 2022ko edizioa Gasteizen egin da urriaren 25 eta 26an. Bertan, besteak beste, Soziolinguistika Klusterreko bi proiektu aurkeztu dira.

Alan R. King Katedraren irekiera hitzaldia eman du Imanol Larreak eta bere ikerketa-egonaldiak aurrera jarraitzen du

Hilabete pasa igaro da Imanol Larrea Klusterreko zuzendariak Galesen ikerketa-egonaldia abiatu zuenetik. Urriaren 13an hitzaldia eman zuen Galesko Liburutegi Nazionalan, Soziolinguistika Klusterrak euskararen erabilera handitzeko metodologiaren inguruan egiten duen lana aurkezteko.

Ikerketak

Abian da euskarazko tesien Koldo Mitxelena sarien VIII. deialdia

[Euskaltzaindia] EHU eta Euskaltzaindiak gaur egin dute deia euskaraz egindako ikerketa bultzatzeko asmoz sortu ziren euskarazko doktorego tesien Koldo Mitxelena sarietarako. Sari bana esleituko da bost jakintza-arlo nagusitan eta eskaerak egiteko epea azaroak 11n amaitzen da.

Ikerketa beka: Emakumeak euskararen normalizazioan

[Andoaindarra euskaraz] Ikerketa bekaren gaia emakumeek Andoaingo euskararen normalizazioan egindako lana da eta proposamenak aurkezteko epea azaroaren 25ean amaitzen da.

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

Jauzirako Prest - Ezagutzaren Unibertsalizazioari buruzko bigarren jardunaldiak

[Kontseilua] 2022ko azaroaren 10 eta 11an ezagutzaren unibertsalizazioa hizpide izango dituen jardunaldiak egingo dira Gasteizen, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak eta Euskalgintzaren Kontseiluak lankidetzan antolatuta.

Badator "Zubi bat euskaratik" hitzaldi zikloa!

[Topagunea] Euskal hiztunok formatu eta kontzientziatu egin behar gara gure bizilagunei harrera euskaratik eskaintzeko dugun arduraz. Horren harira, Topaguneak "ZUBI BAT EUSKARATIK" hitzaldi zikloa antolatu du Auzoko egitasmoa martxan den zortzi herrietan.

Bertsolaritza aztertuko du Jone Miren Hernandezek New Yorkeko City University-n, Bernardo Atxaga Katedrak antolatutako zenbait mintegiren bidez

[Etxepare Institutua] Mintegiak 'Opacidades, ausencias y silencios en el bertsolarismo. (Re)interpretaciones feministas de una práctica cultural "extraordinaria"' du izenburu; urriaren 31n hasiko da, azaroaren 4ra arte.

Hezkuntza sistemari buruzko Euskal Herri mailako gogoeta egin dute Kanbon

[Kazeta.eus] Eusko Ikaskuntza hezkuntza sistemari buruzko herri gogoeta garatzen ari da Euskal Herri osoan. 'Euskal hezkuntza sistema: etorkizuna elkarrekin lantzen: Iparraldeko ahotsak', hori izan da urriaren 15ean, larunbatarekin, Seaskak Kanbon duen egoitzan antolatu foroan.

Taula rodona "Reclaiming New Speakers, Revisiting Old Authenticities: Basque, Catalan and Galician in 2022" – Eva Codó

[Blog RLD] El dia 6 d'octubre va tenir lloc la taula rodona "Reclaiming New Speakers, Revisiting Old Authenticities: Basque, Catalan and Galician in 2022", organitzada en línia per la EDiSo, conjuntament amb la Universitat de Colorado Boulder. Aquí teniu una crònica d'aquest dia.

Liburuak eta artikulu zientifikoak

Ele-meleka proiektuaren azken argitalpenak eskuragarri

[Lasarte-Oriako Udala] Lasarte-Orian ere hainbat urte daramatzagu euskararen erabilera sustatzen eta horren ondorioetako bat da orain aurkezten duguna: Ele-meleka, Bigarren Hezkuntzako nerabeen hizkuntza-sozializazioan laguntzeko proiektua.

Galegoaren liburu beltza: 500 urte eta metafora

[BERRIA] Galegoaren bostehun urteko historia beltza bildu eta argitaratu du Carlos Callonek O libro negro da lingua galega lanean, Francesc Ferrerek katalanaren kasuan eta Joan Mari Torrealdaik euskararenean egin bide bertsean.

Understanding how language revitalisation works: a realist synthesis

[Journal of Multilingual and Multicultural Development] We seek to understand how revitalisation efforts tap into the speech community, how local participation affects outcomes, and how this involvement is supported and sustained by external programs, with a focus on language revitalisation efforts in Australia.

Just. Journal of Language Rights & Minorities, Revista de Drets Lingüístics i Minories is born

[Just. Journal of Language Rights & Minorities] With a wonderful special issue with wonderful people, Just is born. More at <http://LanguageRightsMinorities.org>

Presència i ús del valencià en l'àmbit comercial

[Universitat de València] L'objecte d'aquesta tesi és estudiar la presència i l'ús del valencià en l'àmbit comercial, un espai essencial de relació quotidiana. S'ha dissenyat una articulació metodològica qualitativa i quantitativa.

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

Hizkuntza-ereduak, ikerkuntza eta euskararen etorkizuna

[Campusa] "Hizkuntza-ereduak, ikerkuntza eta euskararen etorkizuna" artikulua idatzi du Eneko Agirre EHUko HiTZ Zentroako kideak.

"Bilbon suposatutzat ematen da gaztelaniaren ezagutza"

[ARGIA] Herrialde, kultura eta testuinguru ugari ezagutu ostean, pandemia betean itzuli zen Euskal Herrira, alabarekin bertan geratzeko asmoz. Nazioarteko esperientzia horrek bertako errealitateari ikuspegi kritikoz begiratzeko aukera eman dio.

(lan aukera) Assistant Professor - 2022/23 - Sociolinguistics

[University of California at San Diego] The Department of Linguistics within the School of Social Sciences at UCSD invites applications for a tenure-track faculty position in Sociolinguistics at the level of Assistant Professor, beginning July 1, 2023.



Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

